

## 1132 ZK.KO DEKRETUA.

Oiartzunen, bi mila eta hamaikako abenduaren 30ean.

Gaia: Oiartzungo Udalaren "MARTUZENEGI" izeneko 2.063.3 zk. herri onurako mendiko 118. unadan egurra erabateko ustiaketa bitartez mozteko kontratazio espedientea. Kontratuaren esleipena.

Alkateak 2011ko urriaren 5ean emandako 860 zk.ko Dekretu bidez, Oiartzungo Udalaren "MARTUZENEGI" izeneko 2.063.3 zk. herri onurako mendiko 118. unadan egurra erabateko ustiaketa bitartez mozteko, jardunbide ireki bidez kontratatze espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoena onartzea erabaki zuen, eta baita esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea ere erabaki zuen.

Lizitazio honen iragarkia Oiartzungo udalaren kontratzailearen profilean eta 2011ko urriaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aipatu kontratazioan proposamenak aurkezteko epean 6 enpresek aurkeztu zuten proposamena:

<u>Proposamen zk.</u>	<u>Titularra</u>
3206	BERDABIO BASOGINTZA SL
3214	MADERAS RUIZ FACES SC
3215	MADERAS JOSÉ SÁIZ SL
3227	CENTRAL FORESTAL SA
3228	ETORKI KOPERATIBA ELKARTEA
3229	MADERAS LEONET SL

Kontratazio Mahaiak bost enpresen proposamenak onartu zituen, ez horrela MADERAS RUIZ FACES SC enpresak aurkeztutako proposamena, honen proposamena baztertua izan zen lehiatzaileak aurkeztutako dokumentazioak klausula administratibo berezien pleguan ezarritakoak betetzen ez zituelako.

Onartutako enpresen proposamen ekonomikoak honako hauek izan dira:

<u>Titularra</u>	<u>Prezioa + BEZ</u>
BERDABIO BASOGINTZA SL	53.000 € + 9.540 € BEZ (%18)
MADERAS JOSÉ SÁIZ SL	57.932 € + 10.427,76 € BEZ (%18)
CENTRAL FORESTAL SA	54.000 € + 9.720 € BEZ (%18)
ETORKI KOPERATIBA ELKARTEA	50.005 € + 9.000,9 € BEZ (%18)
MADERAS LEONET SL	66.600 € + 11.988 € BEZ (%18)



OIARTZUNGO  
UDALA

Gaiaren inguruan Kontratazio Mahaiak 2011ko azaroaren 24an egindako bilkuran aurkeztutako proposamenen balorazioa egin zuen eta aho-batez Oiartzungo Udalaren "MARTUZENEGI" izeneko 2.063.3 zk. herri onurako mendiko 118. unadan erabateko ustiaketa bitartez egurra mozteko kontratua MADERAS LEONET SL enpresari esleitzeko proposamena egin zuen.

MADERAS LEONET SL enpresari esleitzea proposatzen da, zeinaren eskaintza 78.588,00.-eurokoa (BEZ barne) den, osotasunean interes publikoetarako abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa dela iritzita, betiere pleguetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera Kontratazio Mahaiak egindako eta espedientean jasota dauden balorazioetan oinarrituta. Horrenbestez, aipatu kontratazio prozeduran aurkeztutako proposamenak, beherakor ordenatuta, hurrengo eran sailkatu dira:

	<u>ENPRESA</u>	<u>PREZIOA</u>	<u>BEZ</u>	<u>GUZTIRA</u>
1.	MADERAS LEONET SL	66.600 €	11.988 €	78.588 €
2.	MADERAS JOSÉ SÁIZ SL	57.932 €	10.427,76 €	68.359,98 €
3.	CENTRAL FORESTAL SA	54.000 €	9.720 €	63.720 €
4.	BERDABIO BASOGINTZA SL	53.000 €	9.540 €	62.540 €
5.	ETORKI KOPERATIBA ELKARTEA	50.005 €	9.000,9 €	59.005,9 €

MADERAS LEONET SL enpresak aurkeztutako proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak, eskaintzak onartu zaizkien aurkeztutako gainerako lizitatuzaileen aurrean haren eskaintza lehentasunez hautatua izateko, honako hau da: preziorik onuragarriena da.

Horiek horrela, 2011ko abenduaren 15ean Alkatearen 1094 zk.ko Dekretu bidez, Oiartzungo Udalaren "MARTUZENEGI" izeneko 2.063.3 zk. herri onurako mendiko 118. unadan egurra erabateko ustiaketa bitartez mozteko kontratatze prozeduran proposamen ekonomiko onuragarriena MADERAS LEONET SL enpresarena dela erabaki zen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.2 artikuluekin adostasunean hamar egun baliouduneko epea eman zitzaion MADERAS LEONET SL enpresari behin-betiko 3.330,00 euroko bermea eratzeko eta dokumentazioa aurkezteko, eta hala egin du MADERAS LEONET SL enpresak 2011ko abenduaren 30ean.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.3 artikulua arabera errekerimendua bete eta hurrengo bost egun balioudunen barruan egingo da esleipena.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, eta espedientea bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Sektore Publikoaren Legeak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, hurrengoa **ERABAKI DUT:**



OIARTZUNGO  
UDALA

1. Oiartzungo Udalaren "MARTUZENEGI" izeneko 2.063.3 zk. herri onurako mendiko 118. unadan egurra erabateko ustiaketa bitartez mozteko kontratua MADERAS LEONET SL enpresari esleitzea, 78.588 euroko (BEZ barne) prezioan eta gozamen lizentzia lortzen denetik 12 hilabeteko gauzatze-epearekin.
2. Esleipendunak esleipenaren balio osoa horrela ordainduko du:  
Esleipenaren prezioaren %50 kontratua sinatzerakoan ordainduko da.  
Gainontzeko %50, ustiapena bukatu eta gero, hilabete bateko epean ordainduko da.  
Ordainketak KUTXAREN 2101 0060 00 0000 89367 k/k-ean egingo dira.
3. Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun baliodunetan egingo da.
4. Erabaki hau jakinaraztea enpresa esleipendunari eta gainerako enpresa lizitatzaleei.
5. Esleipen hau Udalaren kontratatzaileen profilean argitaratzea.

Mailu Irigorri Gaztañaga bigarrenko alkateorde andreak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen. (Erabaki hau 2011ko abenduaren hogeian 1100 zk.ko Dekretu bidez Alkate andreak egindako delegazioaren egikaritzan ematen da).

*Alkateorde*  
~~ALKATE~~  
  
OIARTZUNGO  
UDALA

*Idazkari*  
IDAZKARITZA  
  
OIARTZUNGO  
UDALA